

SCL

B a s a u r i



Argazkia/Fotografia: "Poncia"



2024
Urtarrila / Maiatza
Enero / Mayo



socialantzokia.eus



URTARRILA/MAIATZA

ENERO/MAYO

- 19/01: **MIKEL MARTÍNEZ & PATXO TELLERIA: KORTXOAREN DILEMA.** ANTZERKIA-UMOREA
- 20/01: **GOLDEN APPLE QUARTET: VAMOS QUE NOS VAMOS.** MUSIKA & UMOREA
- 27/01: **DIEGO VASALLO: MALO NI BUENO.** MUSIKA
- 28/01: **JAVIER GUTIÉRREZ & LUIS BERMEJO: EL TRAJE.** ANTZERKIA
- 03/02: **SILVIA MARSÓ & DEL TORO BLUES BAND: BLUES & ROOTS.** MUSIKA
- 04/02: **LUIS ZAHERA: MÁS CHUNGO.** SOCIAL COMEDY
- 10/02: **TEATRO ARRIAGA & TEATRO ESPAÑOL: LA LUCHA POR LA VIDA.** ANTZERKIA
- 17/02: **STR & OXABI.** GAZTE KONTZERTUA
- 23/02: **ADOS TEATROA: MUCHOS AMIGOS NEGROS.** ANTZERKIA
- 24/02: **EL ESPEJO NEGRO: EL VERDUGO.** ANTZERKIA
- 29/02: **ARIANE VEGAS.** MUSIKA GERTU
- 02/03: **LIMBO CABARET: VERMUT BARATO.** MUSIKA
- 08/03: **ALEX O'DOGHERTY: IMBÉCIL (MIDIENDO LAS PALABRAS).** SOCIAL COMEDY
- 09/03: **SARA AZURZA: HEMEN BERRIRO.** MUSIKA
- 16/03: **EVA GUERRERO: TIERRA DE NADIE.** DANTZA
- 17/03: **LOLITA FLORES: PONCIA.** ANTZERKIA
- 22/03: **KORRIKA KULTURALA: BADON.** KORRIKA KULTURALA
- 23/03: CÍA. **HERNÁN GENÉ: LAS TRÁGICAS PAYASAS DE SHAKESPEARE.** ANTZERKIA-ZIRKUA
- 12/04: **GAZTE KONPAINIA PABELLÓN 6: DÍAS ESTUPENDOS.** ANTZERKIA-UMOREA
- 13/04: **SECUN DE LA ROSA: LAS PISCINAS DE LA BARCELONETA.** ANTZERKIA
- 20/04: **KORRONTZI: KORRONTZI-20.** MUSIKA
- 25/04: **CLEO JONES.** MUSIKA GERTU
- 27/04: **CLAUDIO TOLCACHIR: RABIA.** ANTZERKIA
- 04/05: **FERNANDO TEJERO: CAMINO AL ZOO.** ANTZERKIA
- 10/05: **JON PLAZAOLA: TUTUM PLATZ.** UMOREZKO BAKARRIZKETA
- 11/05: **LUCÍA QUINTANA & ENEKO SAGARDOY: LUCHA Y METAMORFOSIS DE UNA MUJER.** ANTZERKIA
- 17/05: **EÑAUT ELORRIETA: FANTASIA.** MUSIKA
- 26/05: **ANDREA JIMENEZ & CUARTETO DE CUERDA DE LA BOS: "ELLAS": MUJERES COMPOSITORAS DEL SIGLO XIX FRANCÉS.** UDABERRIKO KONTZERTUAK




CONCIERTOS ÍNTIMOS EN EL ESCENARIO

SOCIAL ANTZOKIA

OSTEGUNA/JUEVES · 20:00

6€/SOCIALEN LAGUNAK: DOAN-ENTRADA LIBRE

ARIANE VEGAS



29/02/2024

CLEO JONES

25/04/2024



+ info: socialantzokia.eus



MIKEL MARTÍNEZ & PATXO TELLERIA **KORTXOAREN DILEMA**

“Kortxoaren Dilema” etika, koherentzia, traizio eta mendekuei buruzko joku teatral bat da. Borroka honetan, bizitza galtzen ez duenak, dignitatea galduko du. Borroka latza eta nahasia izango da, post egia eta fake-en garai ilun honetan, zaila delako bereiztea zer den zinezkoa eta zer faltsua.

ANTZERKIA-UMOREA. “KORTXOAREN DILEMA”. Egilea/Autor: **Patxo Telleria**. Zuzendaritza/Dirección: **Mireia Gabilondo**. Eszenografia/Escenografía: **Fernando Bernués**. Antzezleak/Intérpretes: **Patxo Telleria & Mikel Martínez**. *Euskaraz*

Patxo Telleria y Mikel Martínez vuelven al Social Antzokia con “Kortxoaren Dilema”, un thriller político de enredo, en clave de comedia, escrito por Telleria, con dirección de Mireia Gabilondo. Una trama disparatada con giros continuos que sorprenden al espectador. Nada es lo que parece en un espectáculo en el que colabora también Fernando Bernués.

Urtarrilak 19 de enero • Ostirala/Viernes • 20:00 • 10€ (Socialen Lagunak: 5€)



GOLDEN APPLE QUARTET **VAMOS QUE NOS VAMOS**

Golden Apple Quartet laukoteak ikuskizun musikal umoretsua dakar Social Antzokira: "Vamos que nos vamos". Golden Apple Quartet laukotearen atzean lau izen daude: Loyola Garmendia, Eduardo Errondosoro, Manuel Romano eta Enrique Otxoa. Taldea 1986an sortu zen lagun baten ezkontzan. Zeremonian, argizarien argi goxoaz inguratuta zeudela, lau ahotsek bat egin zuten, eta betirako elkar maiteko zutela zin egin zuten. Ibilbide musikala gospel edo espiritual beltzekin hasi zuten, baina gaur egun ikusle guztientzako errepertorio zabala dute. Ahots laukotearen ikuskizun koloretsuetan musika bezain garrantzitsua da umorea.

MUSIKA & UMOREA. "VAMOS QUE NOS VAMOS".
GOLDEN APPLE QUARTET. *Gaztelaniaz/Castellano*

En su gira de despedida, "Golden Apple Quartet" ofrecen en "Vamos que nos vamos" la mejor versión de sí mismos haciendo un recorrido musical por las canciones que han compartido con los espectadores durante casi 4 décadas. De cada una de ellas se ha seleccionado, con la delicadeza y la precisión de un relojero suizo con hipo, aquellos temas que han calado más hondo en la sensibilidad humorística de su público más fiel. ¡Los Golden cuelgan el smoking!

Urtarrilak 20 de enero • Larunbata/Sábado • 20:00 • 20€



DIEGO VASALLO **MALO NI BUENO**

“Malo ni bueno” bost abesti luzeko EPa da, aurrera doazen eta gelditzen ez diren testuekin, urteen joanak uzten digun ez jakintasun, ziurgabetasun, erru eta irrika zama guztia berekin eramanez, sukaldeko kaxoi zahar batean gordetzen ditugun objektu baliaezin horiek bezala. Egitura lainotsuek eta kadentzia elektrikoek ertzetara begira dauden soinu-paisaiei eusten diete, rockaren uren ibilgu estuenetatik irteten saiatuz, batzuetan hortzak erakusteko, eta beste batzuetan lirismo hautsi, putzuz bete eta anbiguo baten marea ilunetan kulunkatzeko.

MUSIKA: **DIEGO VASALLO.** Gitarra/Guitarra: **Fer García.** Perkusioa/Percusión: **Andoni Echeveste.** Ahotsa/Voz: **Diego Vasallo.** *Gaztelaniaz/Castellano*

Texturas nebulosas y cadencias eléctricas sostienen unos paisajes sonoros que apuntan hacia los márgenes, intentando salir de los cauces más estrechos de las aguas del rock, para, a veces, enseñar los dientes, y otras dejarse mecer por oscuras mareas de un lirismo roto, encharcado, ambiguo. Como mirar hacia atrás con las gafas sucias. Canciones perdidas, apropiadas para soltarlas como cometas una noche de tormenta. El disco, grabado en Green Farm Recording y Garate Estudios por Fer García y Kaki Arkarazo, ha sido producido por Fer García y Diego Vasallo, y masterizado en Doctor Mastering por Estanis Elorza.

Urtarrilak 27 de enero • Larunbata/Sábado • 20:00 • 18€

JAVIER GUTIÉRREZ LUIS BERMEJO

EL TRAJE

Texto y dirección JUAN CAVESTANY




Una producción de

VANIA

PRODUCCIONES [OFF]

STIMULUM



JAVIER GUTIÉRREZ & LUIS BERMEJO EL TRAJE

Javier Gutierrez eta Luis Bermejok antzezten dute "El traje" komedia beltza. Bi pertsonaiek tentsio, gordintasun, suspense eta umorez beteriko pultsu intelektual eta fisikoa dute. Kontakizun osoa kokaleku batean garatzen da, baina badira beste bi ikusten ez direnak eta historiaren gainean inpaktu handia dutenak. "El traje" ustelkeria politikoaz eta arimaren ustelkeriaz ari da. Baina argi izpi bat ere erakusten digu: agian garaiz gabiltza oraindik hori guztia aldatzeko...

ANTZERKIA. "EL TRAJE". Egilea eta zuzendaritza/Autor y dirección: **Juan Cavestany**. Antzezleak/Intérpretes: **Javier Gutiérrez, Luis Bermejo**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Javier Gutiérrez y Luis Bermejo protagonizan "El traje", un texto firmado y dirigido por Juan Cavestany (premio Max al mejor autor en castellano por "Urtain") que pretende cuestionar al espectador, en tono de comedia negra, sobre el instinto de supervivencia voraz e individual frente a la posibilidad de una supervivencia verdadera.

Urtarrilak 28 de enero • Igandea/Domingo • 19:00 • 20€




SILVIA MARSÓ.

BLUES

& Roots

SILVIA MARSÓ
EN **CONCIERTO** CON
DEL TORO BLUES BAND

lamarsóproduce 



SILVIA MARSÓ & DEL TORO BLUES BAND **BLUES & ROOTS**

SILVIA MARSÓk musikan debuta egin du DANNY DEL TOROrekin batera, proiektu zoragarri bat sortuz, "BLUES & ROOTS", musika beltzaren arima eta sustraia ezagutzeko ibilbidea, askatasunaren, justiziaren eta edertasunaren aldeko minaren eta borrokaren adierazpen gisa jaio zena.

MUSIKA. "BLUES & ROOTS". Ahotsa/Voz: **Silvia Marsó**. Harmonika eta ahotsa/Armónica y voz: **Danny del Toro**. Gitarra elektrikoa/Guitarra eléctrica: **Sergio Álvarez**. Bajo: **Javier Rodríguez**. Batería: **Fiz Novoa**.

Silvia Marsó debuta en la música creando junto a Del Toro Blues Band un apasionante proyecto: Blues & Roots, un recorrido por el alma de la música negra. Un trayecto emocional y vibrante que abarca desde el nacimiento del blues a orillas del Mississippi hasta llegar a Manhattan, donde en 1929 surgió el Harlem Renaissance, Silvia debuta en la composición musical adaptando al blues el poema "El rey de Harlem", incluido en "Poeta en Nueva York", y por primera vez se escuchará en castellano "Strange fruit", una de las canciones que cambiaron el mundo.

Otsailak 3 de febrero • Larunbata/Sábado • 20:00 • 20€



LUIS ZAHERA MÁS CHUNGO

Luis Zahera aktore galiziar ospetsu eta sarituak bere ibilbidea errepatatuko du Social Antzokian "Más Chungo" bakarrizketarekin. Bere alderdirik komikoenaz goatzeko aukera paregabea. Istorioz eta histeriaz beteriko umorista hau ezagutzeko aukera.

SOCIAL COMEDY: LUIS ZAHERA. *Gaztelaniaz/Castellano*

Tras su visita el año pasado al Social Antzokia, Luis Zahera, reconocido y galardonado actor gallego, vuelve a Basauri con su nuevo monólogo "MÁS CHUNGO". Un repaso que abarca desde sus inicios como actor hasta su actual éxito, su infancia en su Compostela natal, su familia y un sinfín de historias y anécdotas que transportarán al público al surrealismo que Luis afronta cada mañana al despertarse.

Otsailak 4 de febrero • Igandea/Domingo • 17:00 • 22€ (Aurretiko salmenta/Venta anticipada) 27€ (Emanaldiaren egunean/Día de la función)



TEATRO ARRIAGA & TEATRO ESPAÑOL **LA LUCHA POR LA VIDA**

“La lucha por la vida” lanaren asmoa ez zen kronika historiko bat osatzea, baizik eta gizaki bat (Manuel Alcázar) ingurune latz eta gogor batean nola hazten den azaltzea. Eta ez dezagun ahantz alferrak, pikaroak, iruzurgileak, jende langilea, izaki babesgabeak eta pertsona eskuzabalak ez direla garai jakin batekoak soilik.

ANTZERKIA. “LA LUCHA POR LA VIDA”. Moldaketa /Adaptación: José Ramón Fernández. Zuzendaritza/Dirección: Ramón Barea. Antzezleak/Intérpretes: Ramón Barea, Aitor Fernandino, Olatz Ganboa, Ione Irazabal, Itziar Lazkano, Sandra Martín, Alfonso Torregrosa, Leire Ormazabal, Diego Pérez, Arnatz Puertas. Eszenografia: José Ibarrola. *Gaztelaniaz/Castellano*

El Teatro Arriaga de Bilbao rinde homenaje al escritor donostiarra Pío Baroja con “La lucha por la vida”, una adaptación de casi tres horas de duración en el escenario dirigida e interpretada por Ramón Barea, junto a los diez actores y actrices que dan vida al centenar de personajes que componen la obra. Ha sido una labor titánica, que comenzó resumida en más de 500 folios y que acabó condensada en tomo al centenar, con 60 escenas distintas, que discurren a un ritmo cinematográfico trepidante.

Otsailak 10 de febrero • Larunbata/Sábado • 19:00 • 20€



GAZTE KONTZERTUA

STR
&
OXABI

Otsailak 17 de febrero • 22:00 • 8€

(5€ Gazte Txartela eta Basauriko Gazte Txartelarekin)

Besaulkirik gabe/Sin butacas



ADOS TEATROA

MUCHOS AMIGOS NEGROS

Errealitateari lotutatako istorio bat, gaurkotasun biziko gai bati ematen diona: pertsona ezezagunari, migratzaileari, beste erlijio bateko jarraitzaileari, gizarte-klase ahulagoa duenari edo bestelako joera sexuala duenari beldurra edo arbuioa. Geruza askoren azpian ezkututzen dugun sentimendua da hau. Ezberdin denarekiko, aniztasunarekiko beldurra, guztiok izkututzen duguna, izan ere, denok ditugu "lagun beltz asko".

ANTZERKIA. "MUCHOS AMIGOS NEGROS". Egilea eta zuzendaritza/
Autora y dirección: **Garbi Losada**. Antzezleak/Intérpretes: **Ramón Ibarra, Asier Ormazá, Asier Sota**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Una historia imprescindible: una narración que mira directamente a la línea de flotación de nuestras creencias y principios, dramaturgia provocativa, llena de diálogos animados, en una transición perfecta de la risa al drama. Un texto lleno de (negra) humanidad, y que pone de relieve las (negras) miserias de que es capaz el ser humano, con un (negro) sentido del humor destinado a un público amplio y diverso. Es una dramaturgia fresca, que deja lugar a la carcajada y al drama, con puntos de giro que sorprenden, con personajes bien definidos, reconocibles y humanos.

Otsailak 23 de febrero • Ostirala/Viernes • 20:00 • 18€



*De Luis García Berlanga
y Rafael Azcona*

*Adaptación y dirección
de Ángel Calvente*

Una coproducción de:

el Espejo negro

SOHO

TEATRO · MÚSICA · DANZA · MÁLAGA

 CaixaBank

Con la colaboración de:



UNIVERSIDAD
DE MÁLAGA | VICERRECTORADO
DE CULTURA




EL ESPEJO NEGRO EL VERDUGO

"El Verdugo" heriotza-zigorren eta haren mekanismo ilunen aurkako alegatu basatia da. Biluzik, beste garai batzuetako Espainia bat erakusten digu: apaltasun morala, morrontza, matxismoa...

ANTZERKIA. "EL VERDUGO". Luis García Berlanga eta Rafael Azconaren "El verdugo" filmaren gidoian oinarritutako lana/Obra basada en el guión de la película "El verdugo", de Luis García Berlanga y Rafael Azcona. Moldaketa eta zuzendaritza/Adaptación teatral y dirección: Ángel Calvente. Antzezleak/Intérpretes: José Vera Nicart, Carlos Cuadros, Laín Calvente y Susana Almahano. Txotxongiloen diseinua eta eraikuntza/Diseño y construcción de marionetas: Ángel Calvente. *Gaztelaniaz/Castellano*

En el 2023, y coincidiendo con los 60 años del estreno de "El verdugo" en 1963 en el XXIV Festival de Cine de Venecia, la compañía El Espejo Negro puso en marcha una impecable versión teatral en homenaje a Luis García Berlanga y a su mítica obra, una de las mejores películas de la historia del cine español, sátira de los años sesenta y de los rasgos más oscuros de la sociedad española de aquellos tiempos. Ésta es la primera vez que se adapta la emblemática película al teatro de marionetas en un montaje destinado a jóvenes y adultos.

Otsailak 24 de febrero • Larunbata/Sábado • 20:00 • 18€





LIMBO CABARET VERMUT BARATO

Limbo Cabaret konpainiaren azken lan honetan, kabaretean ohikoak diren genero eta diziplina guztiak ikusteko aukera izango dugu. Kabareta askatasuna da eta horregaitik, une berean komediatik dramara, ironiara, sexura edo gaurkotasunera igarotzeko aukera ematen du.

MUSIKA. "VERMUT BARATO". Zuzendaritza/Dirección: **Belén Riquelme**. Antzezlea/Intérprete: **Belén Riquelme**. Musikaria/Músico: **Gilberto Aubán**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Belén Riquelme loca perdida presenta sus nuevas y deliciosas canciones acompañada al piano por el mágico Gilberto Aubán (Gilbertástico) en este desconcertante y divertidísimo Cabaret-Concierto. Una cabaretera desubicada viaja por el tiempo y cada vez aparece en una época distinta a presentar su show. Viene de El Limbo un lugar muy chungo donde hay otras cantantes como ella. En este proyecto hay dulzura, hay trocitos de vida, hay swing, desamor, venganza, cabaret, música ligera, drama, risas, tropicalismo, melancolía, melodrama y vermut.

Martxoak 2 de marzo • Larunbata/Sábado • 21:00 • 15€



ALEX O'DOGHERTY

IMBÉCIL (MIDIENDO LAS PALABRAS)

“Show berri bat idatzi behar nuen. Eta ez nekien zeri buruz... Banekien hitzei buruz hitz egin nahi nuela, zuzeneko musika pixka bat egin nahi nuela eta publikoarekin jolas batzuk egin nahi nituela. Hitzei buruz idazten hasi nintzen, asko gustatzen zaizkidalako eta boteretsuak iruditzen zaizkidalako. Eta ikuskizuna itxura hartzen hasi zen. Eta gozatzen hasi nintzen”. *Alex O'Dogherty*

SOCIAL COMEDY: “IMBÉCIL (MIDIENDO LAS PALABRAS)”.
Gidoia eta musika/Guión y música: **Alex O'Dogherty.**
Arte Zuzendaritza/Dirección de arte: **Rafael Lucas, Alex O'Dogherty.** 100 min. *Gaztelaniaz/Castellano.*

En este nuevo espectáculo habla de palabras, palabritas y palabrotas. De lo que se dice con palabras y de lo que se dice sin ellas, de la capacidad de la gente para ofender y para ofenderse, y del derecho a ser y a hacer el IMBÉCIL, que también significa: Tonto, payaso, divertido... ¡Y a él le encanta ser así!

Martxoak 8 de marzo • Ostirala/Viernes • 20:00 • 20€



SARA AZURZA HEMEN BERRIRO

"**Hemen berriro** bizitzako ziklo emozionalaren isla da. Pertsona batek igaro ditzakeen fase emozional desberdinak aurki ditzakegu bertan, letra eta musika entzuten baditugu. Kanta guztiek zerbaiti abesten diote, emozio bati. Hala ere, niretzat esanahi konkretu bat duten arren, besteentzat beste bat izango da, eta hori da gauzarik politena, norberak abesti bakoitzarekin emozioen inguruan hausnarketa desberdinak egitea". *Sara Azurza.*

MUSIKA. "HEMEN BERRIRO". Ahotsa eta gitarra/Voz y guitarra: **Sara Azurza**, Pianoa eta gitarra: **Iker Lauroba**, bateria: **Haritz Lauroba**, bajo: **Julen Barandiaran**. *Euskaraz*

"Hemen Berriro" se publicó en enero de 2023 y es el primer trabajo completo de la cantante y compositora Sara Azurza. Presenta nueve canciones que tratan sobre el ciclo emocional de la vida y reflejan distintas emociones y sentimientos que viajan sobre unas melodías que combinan estilos tan diferentes como el pop, soul, funky y electrónica. Azurza cuenta además con la compañía de extraordinarios músicos.

Martxoak 9 de marzo • Larunbata/Sábado • 20:00 • 15€



EVA GUERRERO

TIERRA DE NADIE

Leku ezkutu batera bidaiatzea –norberaren barrena egindako bidaiaren metafora gisa–, eta gorputz honek ezkutatzen dituen mirariak eta piztiak aurkitzea, ozeanoaren punturik sakonenera jaitsiko bagina bezala, edo munduko lurrik urrunenera iritsiko bagina bezala.

DANTZA: EVA GUERRERO. Zuzendaria eta testuak/Dirección y textos: **Eva Guerrero**. Koreografía eta interpretazioa/Coreografía e interpretación: **Eva Guerrero, Garazi Lopez de Armentia**. Musika sorkuntza eta interpretazioa/Creación musical e interpretación: **Yolanda Bustillo y Carla Sevilla**.

Tierra de nadie es danza, voz, música en directo, atmósferas poéticas, naturaleza, mujeres-animales, cuerpos extraños, sonidos evocadores. El cuerpo como territorio, las fronteras y los límites, un lugar que no nos pertenece, pero donde todo es posible. Es una inmersión a un lugar por descubrir.

Martxoak 16 de marzo • Larunbata/Sábado • 20:00 • 15€



LOLITA FLORES PONCIA

Laino-ekaitz baten erdian, Bernarda Albaren neskame Poncia otoitz egiten ari da Adelaren heriotzagatik. Etxea isiltasunean murgildu da. Ponciak bere buruarekin hitz egiten du, bai eta Bernarda Albarekin eta haren alabekin.

ANTZERKIA. "PONCIA". Egilea/Autor: **Luis Luque**, a partir de "La Casa de Bernarda Alba", de **Federico García Lorca**. Zuzendaritza/Dirección: **Luis Luque**. Antzezlea/Intérprete: **Lolita Flores**. Una producción del **Teatro Español y Pentacion Espectáculos**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Poncia es un espectáculo protagonizado por Lolita Flores y escrito y dirigido por Luis Luque, a partir de La Casa de Bernarda Alba de Federico García Lorca. Dentro de una tormenta de niebla, Poncia, la criada de Bernarda Alba, reza por la muerte de Adela. La casa se ha sumido en un mar de silencio. Poncia habla sola y también con ellas, con Bernarda Alba y sus hijas. Escuchamos la voz de la criada para iluminar los rincones de la obra de Lorca. La Poncia habla de suicidio, de libertad, de culpa, de clase, de educación, de sexo y lo habla con toda la fuerza de la voz que ha sido maltratada y callada.

Martxoak 17 de marzo • Igandea/Domingo • 19:00 • 20€



KORRIKA KULTURALA BADON

Orkestra fosoan dago. Musika hasten da eta teloaia jaitsita dago, iluntasuna. Norbaitek teloaia astindu du. Zenbat ote daude? Arriskuan ote gaude? Orroak ere entzuten dira, ihes egin nahi duen norbaitenak bezala. Edo barreak dira? Gogorarazten digu... Gogorarazten digu... Ez dakit zer gogorarazten digun. Teloiaren eta lurraren arteko zulotik argia agertu da. Zerbait dator. Zerbait gerturatzen ari da. Ekarri duzu? Badon opera postdramatiko bat da, non 5 koadroren bitartez genealogia propio bati atea irekitzen zaion. Plaza bat non oraina hackeatzen den etorkizunari buruz hitz egiteko.

KORRIKA KULTURALA "BADON". *Euskaraz*

Badon, un proyecto con vocación de "poner el foco sobre los cuerpos que han quedado en la sombra", es el ganador de la beca Korrika-AEK para la creación. Propone "poner en el centro ideas, voces y cuerpos que hasta ahora han estado en los márgenes", y su medio será "un laboratorio de creación para la reflexión artística interdisciplinar". Una ópera postdramática en la que se abre la puerta a una genealogía propia a través de 5 cuadros. Una plaza donde se hackea el presente para hablar del futuro.

Martxoak 22 de marzo • Ostirala/Viernes • 20:00 • 10€ (Socialen Lagunak: 5€)



CÍA. HERNÁN GENÉ LAS TRÁGICAS PAYASAS DE SHAKESPEARE

Shakespeare familia osoarentzat! Barre-algara eragingo dizun funtzio distiratsua. Lau pailazo antzerkiaren munduan erabat murgiltzen dira, orain amaieraren atarian dagoen bingo zahar batean. Poliziak deskubritzeko etengabeko beldurrak ilundu egiten ditu batzuetan Otelo, Hamlet eta Romeo eta Julietaren interpretazio dibertigarriak. Shakespeareren esentzia dramatikoa galdu gabe, Genék pailazoan munduan berezkoak diren txiste eta gaizki-ulertuen segida barregarria eraikitzen du.

ANTZERKIA-ZIRKUA. "LAS TRÁGICAS PAYASAS DE SHAKESPEARE".
Dramaturgia eta zuzendaritza/Dramaturgia y dirección: **Hernán Gené**. Pailazoak/Payasas: **Esther Acevedo, Maribel Vital, Georgina Rey, Lidia Navarro**. Zirkuko artistak/Artistas de circo: **Isa Belui, Maité Esteban Oliva**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Hernán Gené, lleva el universo shakesperiano a una nueva dimensión en la que el humor y la originalidad no están reñidos con la calidad de la dramaturgia, sino que potencia los momentos poéticos y teatrales, hermanándolos con una hilarante sucesión de gags y equívocos, propios del mundo de los clowns. La obra viene acompañada de números circenses.

Martxoak 23 de marzo • Larunbata/Sábado • 20:00 • 18€



GAZTE KONPAINIA PABELLÓN 6 DÍAS ESTUPENDOS

Udan, nork bere paradisia eraikitzen du eta udaren iheskortasun hura urte osoan iraun arazteko gogo horrek frustrazioa dakar. Frustrazio hori antzematen da antzezlanean. Une dramatikoak eta barregarriak tartekatzen dira. Komedia sensual, lotsagabe eta sentimentala da.

ANTZERKIA-UMOREA: "DÍAS ESTUPENDOS". Egilea/Autor: **Alfredo Sanzol**. Zuzendaritza/Dirección: **Itziar Lazkano**. Antzezleak/Intérpretes: **Gorka Luna, Izar Pizarro, Itxaso Sánchez, Omar Somai, Markel Vázquez, Sofía Zallio**. Kantu zuzendaritza/Dirección de canto: **Yeray Vázquez**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Vuelve Pabellón 6 al Social Antzokia con su último estreno, "Días estupendos". Una obra de Alfredo Sanzol que nos hace viajar por los días de verano que suceden en diferentes lugares del mundo, pero que comparten un mismo territorio: el territorio de la soledad, de las contradicciones, de la complejidad de las relaciones humanas. En forma de escenas cortas, el espectáculo es un puzzle emocional salpicado de humor sobre las dificultades que implica ser humano y no morir en el intento.

Apirilak 12 de abril • Ostirala/Viernes • 20:00 • 18€



SECUN DE LA ROSA

LAS PISCINAS DE LA BARCELONETA

"LAS PISCINAS DE LA BARCELONETA" inguru libre, magiko eta dekadentea, non pertsonaien eta gertaeren galeria batek mundu berri bat marrazten duen: lehen jardunaldi libertarioak eta anarkiaren uda, LGTBI lehen manifestazioa, Paraleloko lokalak eta artistak, kontrakultura, kabareteroak eta gehiegizkoak.

ANTZERKIA. "LAS PISCINAS DE LA BARCELONETA".
Dramaturgia, antzezlea eta zuzendaria/ Dramaturgia, intérprete
y dirección **Secun de la Rosa.** *Gaztelaniaz/Castellano*

A lo largo de 70 minutos, Secun de la Rosa deleita al público con un relato impregnado de alma y verdad. Es muy hermoso ver cómo al actor, dando vida a Sebastián Roca, se le van iluminando los ojos al recordar cada una de las vivencias de aquel mágico verano de 1977 en el que conoció a tantos y tantos personajes que le abrieron los ojos. De principio a fin y, solo con el don de la palabra, Secun se mete al público en el bolsillo que cae rendido ante su pasmosa naturalidad y su encanto.

Apirilak 13 de abril • Larunbata/Sábado • 20:00 • 18€



KORRONTZI KORRONTZI-20

20. URTEURRENEKO DISKO BERRIAREN AURKEZPEN KONTZERTUA. 2024an KORRONTZIk 20 urte bete ditu eta, data garrantzitsu hau ospatzeko, sorpresaz betetako lan berri bat prestatu du taldeak: "KORRONTZI 20", Guztira 20 abesti, 20 kolaboratzaileekin. Horien artean: Phil Cunningham (Scotland), Michael McGoldrick (UK), Luar Na Lubre (Galiza), edo Iñigo ETS, Alex Gatibu, Gozategi (EH) bezalako izenak aurkituko ditugu beste ezuste atsegin batzuen artean.

MUSIKA: "KORRONTZI-20". Trikitixa eta ahots nagusia: **Agus Barandiaran**. Perkusioa eta batería: **Ander Hurtado de Saratxo**. Kontrabaxua, baxu elektrikoa eta koroak: **Kike Mora**. Gitarra, mandolina eta koroak: **Alberto Rodríguez**. *Euskaraz*

CONCIERTO PRESENTACIÓN DEL NUEVO DISCO 20 ANIVERSARIO. En el 2024 KORRONTZI cumple 20 años y, para celebrar esta fecha tan señalada, el grupo ha preparado un nuevo trabajo lleno de sorpresas: "KORRONTZI-20". Un proyecto muy ambicioso en el que el grupo ha contado con la ayuda del productor portugués Luis Peixoto para versionar algunos de los temas imprescindibles del repertorio de Korrontzi, así como producir otros nuevos para la ocasión.

Apirilak 20 de abril • Larunbata/Sábado • 20:00 • 18€



CLAUDIO TOLCACHIR

RABIA

"Proiektu batzuek gorputza ia obsesiboki hartzen digute, eta ez gaituzte askatzen argia ikusi arte. Rabia da horietako bat. Nobela irakurri nuenetik, irudiek, sentipenek eta sakonki markatu ninduten uneek harrapatuta geratu nintzen, harik eta istorioa berrikusteak eragiten zidan plazer morbosoa antzerki-zeremonia paregabea eta liluragarria izan zitekeela sumatu nuen arte. Istorio hau kontatzea abenturarik arriskutsuenean murgiltzea da, baina aldi berean plazer handia ematen dit". *Claudio Tolcachir*

ANTZERKIA: "RABIA". Egokitzapena/Adaptación: **Claudio Tolcachir, Lautaro Perotti, María García de Oteyza, Mónica Acevedo**. Zuzendaritza/Dirección: **Claudio Tolcachir, Lautaro Perotti**. Antzezlea/Intérprete: **Claudio Tolcachir**. *Gaztelaniaz/Castellano*

La aclamada novela "Rabia" del argentino Sergio Bizzio llega a Basauri adaptada al teatro de la mano del propio Tolcachir en colaboración con Lautaro Perotti, María García de Oteyza y Mónica Acevedo. La obra homónima de Bizzio se convierte en un monólogo que es una espiral claustrofóbica y de violencia latente. Claudio Tolcachir se sube al escenario como actor con este inquietante ejercicio dramático.

Apirilak 27 de abril • Larunbata/Sábado • 20:00 • 20€

MABEL
DEL POZO

FERNANDO
TEJERO

DANI
MURIEL



UNA OBRA DE EDWARD ALBEE

CAMINO AL ZOO

VERSIÓN JUAN CARLOS RUBIO Y BERNABÉ RICO

DIRECCIÓN JUAN CARLOS RUBIO

TALYCUAL

PENTACION
TEATRO

LÁZARO
PRODUCCIONES

LA ALEGRÍA
PRODUCCIONES




FERNANDO TEJERO **CAMINO AL ZOO**

Nahiz eta bikotea izan, Peter eta Annen eguneroko bizitza inkomunikazioak eta bakardadeak markatzen dute. Egoera horretatik ihes egiteko, Peterrek eguna Central Park-eko zoologikoan pasatzea erabaki du. Bertan, Jerry ezagutuko du, bere istorioak entzutera behartzen duen pertsonaia xeble bat. Azken istorioa beldurgarriena da: zoorra egindako bisitaren benetako arrazoia.

ANTZERKIA: "CAMINO AL ZOO". Egilea/Autor: **Edward Albee**. Zuzendaritza/Dirección: **Juan Carlos Rubio**. Antzezleak/Intérpretes: **Fernando Tejero Dani Muriel Mabel del Pozo**. Egokitapena/Adaptación: **Bernabé Rico**. *Gaztelaniaz/Castellano*

Obra simple y a la vez muy enigmática, trata de la enorme dificultad de comunicación entre los seres humanos. Solamente hay dos personajes y la obra es en esencia un monólogo que recuerda a la desoladora dramaturgia de Ionesco y Beckett: no se intenta en ningún momento moralizar, como ocurre en general con todo el teatro de Albee.

Maiatzak 4 de mayo • Larunbata/Sábado • 20:00 • 20€



JON PLAZAOLA TUTUM PLATZ

Jon Plazaola bere sorlekura, bere sehaskara itzuli da "Tu-Tum, Platz!" umorezko ikuskizun berriarekin. Taula ganean bere lehen agerraldia egin zuenetik 23 urte pasa diren honetan berriz ere "Stand Up" formatuko bakarrizketari heldu dio, hori bai; 23 urte zaharrago, 23 urte jakintsuago eta 23 urte kabroiago. Ordubate izango dugu, umorez betetako kolpez-kolpe baten ondoren ardo ona bezela urteen poderioz hovera egin duen ala ardo txarra bezela ozpindu den jakiteko.

UMOREZKO BAKARRIZKETA: "TUTUM PLATZ".
Antzezlea/Intérprete: **Jon Plazaola.** Euskaraz

Tras haberse cumplido 23 años desde su primera aparición encima del escenario para hacer un «stand up», Jon Plazaola abraza nuevamente ese formato eso sí, «23 años más viejo, más sabio y más cabrón», como él mismo indica. Una hora de risas bastará para que el público descubra si, como el buen vino, ha mejorado como el tiempo o, en cambio, se ha avinagrado como el más peleón de los vinos.

Maiatzak 10 de mayo • Ostirala/Viernes • 20:00 • 10€ (Socialen Lagunak: 5€)



LUCÍA QUINTANA & ENEKO SAGARDOY

LUCHA Y METAMORFOSIS DE UNA MUJER

Amaren gaztetako autorretratua nahi gabe aurkitu ondoren, Édouard Louisek emakume haren figura dakar gogora: baztertua, menperatua, gizonen indarkeriak umiliatua, 45 urterekin matxinatu eta ihes egingo du eta, poliki-poliki, bere askatasuna eraiki. Gizarte patriarkalak, familiak eta semeak ere suntsitu duten emakumearen metamorfosia ikusiko dugu.

ANTZERKIA: "LUCHA Y METAMORFOSIS DE UNA MUJER" de Édouard Louis. Zuzendaritza/Dirección **Fernando Bernués**. Egokitzapena/Adaptación: **Danele Sarriguarte**. Antzezleak/Intérpretes: **Lucía Quintana, Eneko Sagardoy**. *Gaztelaniaz/Castellano. Eszenatokian/En el escenario. Edukiera/Aforo: 100 pertsona*

En esta apuesta teatral, Édouard Louis (interpretado por Eneko Sagardoy) "invita" a compartir escena, en todo momento, a su madre (Lucía Quintana). Una presencia, "silenciosa" (salvo breves y puntuales intervenciones verbales), reforzada por la proyección, a dos bandas, de un primer plano de la madre transitando, "in situ", por los recovecos emocionales de este texto sin condescendencia alguna y valiente hasta la honestidad autocrítica.

Maiatzak 11 de mayo • Larunbata/Sábado • 20:00 • 18€



EÑAUT ELORRIETA FANTASIA

Fantasia deitzen da Eñaut Elorrietaren disko eta bira berria. Hamar kantu berriz osatzen den lan honetan Aitor Etxebarria izan du ekoizle eta bidelagun Eñautek. Azken bi urteetan eskuz esku egindako lanaren emaitza da Fantasia eta Eñauten berezko esentzia harrapatzen saiatu da Aitor, maitasuna hari duten kantu soil, bare eta ederrak biltzen dituen diskoan.

MUSIKA: EÑAUT ELORRIETA. Ahotsa eta gitarra/Voz y guitarra: **Eñaut Elorrieta**, Gitarra eta koraak: **Ruben Caballero**, Bajo: **Fernando Neira**, Teklatua eta koraak/Teclado y coros: **Txus Aranburu**, Batería eta koraak/batería y coros: **Ander Zulaika**, Gonbidapen berezia/Invitado especial (tronboia): **Igor Telletxea**. *Euskaraz*

El nuevo trabajo de Eñaut Elorrieta cuenta con la participación de destacados músicos como Felix Buff, Amorante, Fernando Neira y Xabi Zeberio, entre otros. En el concierto en directo, el artista ofrecerá no solo los temas de Fantasia, sino también canciones de toda su carrera, acompañado por sus músicos habituales en directo.

Maiatzak 17 de mayo • Ostirala/Viernes • 21:00 • 18€



UDABERRIKO KONTZERTUAK

ANDREA JIMÉNEZ (Soprano) & Cuarteto de cuerda de la BOS

"Ellas": Mujeres compositoras del siglo XIX francés

Egitarauak, XIX. mende amaierako konpositore frantsesei eskainitako lehen zatia eta operarekin zuten harremanagatik, batez ere, ezagunak izan ziren konpositoreen ganbera-musikari eskainitako bigarren zatia uztartzen ditu.

E G I T A R A U A / P R O G R A M A :

LEHEN ZATIA/PRIMERA PARTE

Andrea Jiménez, soprano / Néstor Sutil, flauta / Marion Desjacques, arpa

"ELLAS": MUJERES COMPOSITORAS DEL S. XIX FRANCÉS

Nadia Boulanger: Cantique - Versailles

Lili Boulanger: Reflets - Elle était descendue de la prairie - Elle est gravement gaie

Cécile Chaminade: Ma première lettre - La lune paresseuse

Pauline Viardot: Hai luli - Chanson de infante - Le roussignolet Anon

BIGARREN ZATIA/SEGUNDA PARTE

BOSeko hari-laukotea / Cuarteto de cuerda de la BOS

G. Puccini: "Crisantemi", para cuarteto de cuerdas (7')

G. Verdi: Cuarteto de cuerdas en mi menor (23')

El programa combina una primera parte dedicada a compositoras francesas de finales del S.XIX, con una segunda parte dedicada a la música de cámara de compositores que fueron conocidos principalmente por su relación con la ópera.

Maiatzak 26 de mayo • Igandea/Domingo • 19:00 • 10€ (Socialen Lagunak: 5€)

PENITACION

CORIBANTE

BEATRIZ
CARVAJAL

NORMA
RUIZ

PEPA
RUS

EVA
ISANTA

Producida por
JESÚS CIMARRO

LAS QUE GRITAN

Una comedia escrita por
RINCÓN-CANO y
DEL CASTILLO

Dirigida por JOSÉ MARÍA DEL CASTILLO



LASTER/PRÓXIMAMENTE



LAS QUE GRITAN

BEATRIZ CARBAJAL

LOS AMIGOS DE ELLAS DOS

MALENA ALTERIO

BAKARRIZKETAK

MIKEL MARTÍNEZ ETA PATXO TELLERIA

LAS AVENTURAS DE RAPUNZEL

EL MUSICAL

...



UMEENTZAT INFANTILES

28/12: **GO!AZEN 10. GALA.** AURRESTRENALDI GALA

03/01: **GABONETAKO KONTZERTUA:
TXIKIROCK: EUSKAL ROCKARI ERREPASOA.** MUSIKA

14/01: **LA BALDUFA: LA FÁBULA DE LA ARDILLA.** ANTZERKIA

11/02: **KARNABAS.** FESTA

10/03: **KONTZERTUA: GO!AZEN 10.0.** MUSIKA

21/04: **MARIE DE JONGH: BO JAUNA.** ANTZERKIA

05/05: **PARAISO ANTZERKIA: KUTXARTEAN.** ANTZERKIA

19/05: **PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS: EZ GARA JAITSIKO.** PAILAZOAK



GABONETAKO KONTZERTUA **TXIKIROCK: EUSKAL ROCKARI ERREPASOA**

Txiki Rock familia eta musika batzen dituen ikuskizuna da. Ekitaldi honen bidez, Euskal Herriko Rockean hasiko dira txikiak eta helduek gaztetan entzuten zituzten abestiak gogora ekarriko dituzte. Helduek eta txikiek Rocka egoera garbian senti dezaten eta euskarari parte-hartze handia eman diezaioten.

MUSIKA. "TXIKIROCK: EUSKAL ROCKARI ERREPASOA". Gomendatua/Recomendado: 5 urtetik aurrera/a partir de 5 años. 60 min. *Euskaraz*

Txiki Rock es una vivencia en la que se unen familia y música. Este evento pretende iniciar a los más pequeños en el Rock de Euskal Herria y recordar las canciones que escuchaban los adultos en su juventud. Volverán a sonar los hits de Kortatu, Itoz, Hertzainak, y demás formaciones tan queridas y recordadas.

Urtarrilak 3 de enero • Asteazkena/Miércoles • 17:30 • 6€



GOMENDATUA
RECOMENDADO
SAREA
BURUETAKO
ANTZOKI SAREA
EUSKAL
DE TEATROS



LA BALDUFA

LA FÁBULA DE LA ARDILLA

Triku handia lasai bizi da, haritz handi baten itzalpean, eta bereak zaintzen ditu, bere mundu-zatitxoaz gozaten duen bitartean. Baina egun batean, bake hau aztoratuko da, urtxintxa atsegin, bihurri eta jostari baten etorreragatik. Beraien arteko bizikidetzeta ez da erraza izango. Triku zakar eta babeslea eta jakiteko gogoia duen urtxintxaa ezagutuko ditugu.

ANTZERKIA. "LA FÁBULA DE LA ARDILLA". Egileak/Autores: **Jokin Oregi & La Baldufa.** Zuzendaritza/Dirección: **Jokin Oregi.** Antzezleak/Intérpretes: Erizo: **Carles Pijuan o Ferran López.** Ardilla: **Emiliano Pardo o Enric Blasi.** Musikaria/Músico: **Pau Elias.** Gomendatua/Recomendado: 3 urtetik aurrera/a partir de 3 años. 50 min. *Gaztelaniaz/Castellano*

Una de las características de las fábulas es que siempre acaban con una conclusión moral. Por lo tanto, ¿de qué nos habla "La fábula de la ardilla"? Con este espectáculo, La Baldufa nos propone pensar, reflexionar y ahondar en la diferencia y el mestizaje. El erizo y la ardilla son muy diferentes, pero tienen infinidad de oportunidades para aprender y compartir juntos.

Urtarrilak 14 de enero • Igandea/Domingo • 12:30 • 6€




KONTZERTUA GO!AZEN 10.0

Denboraldi honetan, Zuri jada ez da ikasle izango, begiralea baizik. Garazi ez da Basakabira joango ikasle moduan... baina bertan bukatuko du azkenean, aspaldiko etsai ezagun batengandik ihesi. Eta bitartean, Noak, Leak, Mattinek eta Saioak erronka zail bat gainditu beharko dute: haien musika taldea berpiztu behar dute institutura itzuli ahal izateko.

KONTZERTUA: "GO!AZEN 10.0". Zuzendaritza/Dirección: **Itziar Gomez.** Zuzendaritza musikala/Dirección musical: **Leire Berasaluze.** Antzezleak/Intérpretes: **Nerea Elizalde, Lorea Intxausti, Maria Redondo, Mikele Arizkorreta, Xabier Elizalde, Ander Ayerza, Haizea Astrain, Unai Arrieta, Unai Arana, Marina Ostolaza, Kimetz Etxabe.** Koreografia/Coreografía: **Bamboo Dance School.** Gomendatua/Recomendado: 5-14 urte/años. 70 min *Euskaraz*

Llega la nueva temporada de Go!azen 10.0 y continúan las vivencias y peripecias del joven grupo de Basakabi ¡Historias de amor, mentiras, aventuras y música! Todo esto y mucho más podrás conocerlo en este espectáculo con formato de concierto, en el que, por supuesto, no faltarán nuevas canciones.

Martxoak 10 de marzo • Igandea/Domingo • 18:00 • 10€



MARIE DE JONGH BO JAUNA

2008an sortua, Marie de Jongh familia osoari zuzendutako antzerkigintzaren baitan sendotzen ari den erreferente bihurtu da. Jokin Oregi zuzendariaren sormenean oinarritutako kontaera, delikatu, umoretsu eta hunkigarriek, berezko zigilua eman diote taldeari. Keinu bidezko ikuskizunak sortzen ditu, hitzik gabekoak guztiak.

ANTZERKIA. "BO JAUNA". Egilea, Zuzendaritza/Autor, director: **Jokin Oregi**. Maskarak/Máscaras: **Javi Tirado**. Gomendatua/ Recomendado: 3-9 urte/años. 50 min. *Testurik gabe/Sin texto*

Los tres sirvientes están acostumbrados a decir ¡Señor Bo!, lo repiten muchas veces a lo largo del día. Llevan toda la vida bajo el mandato del Señor, desde que él era un niño. En ocasiones sueñan qué sería el mundo si ellos fueran los señores, qué es que mandar esté en la mano de cada uno y no estar bajo el mandato de nadie. Juegan tomando el rol del Señor, mientras los otros hacen de sirvientes. Siendo el Señor un niño tuvieron la ocasión de decirle ¡No!, pero no lo hicieron, y el Señor ha seguido con su tiranía. La relación entre ellos es de total servidumbre, de sumisión; pero, de repente, surge una nueva oportunidad de decir ¡No!

Apirilak 21 de abril • Igandea/Domingo • 12:30 • 6€



PARAISO ANTZERKIA KUTXARTEAN

Bartolomeus eta Komino kutxa batzuetan bizi dira, eta leku ameslarietarako bidaiak irudikatzen dituzte, sormen harrigarriarekin. Pozik bizi dira bata bestearekin kontatzeagatik, harik eta hirugarren pertsonaia bat agertzen den arte, beren adiskidetasunaren indarra frogatuko duena beren kutxak lapurtuz. Elkarrekin aurkituko dute egun batean baliotsuena geratu zaiela ikustean zoriontsu izan ziren lekura itzultzeko bidea: adiskidetasuna eta imajinatzeko gaitasuna.

ANTZERKIA. "KUTXARTEAN". Egilea/Autora: **Rosa A. Garcia.** Antzezleak/Intérpretes: **Xabier Flamarique, Xabier Artieda, Aritz Bengoa.** Gomendatua/Recomendado: 6 urtetik aurrera/A partir de 6 años. 55 min. *Euskaraz*

Un espectáculo que nos invita a disfrutar del juego, a superar las dificultades en compañía y a imaginar que junto a otros seres humanos es posible alcanzar cualquier sueño. Una historia de llena de humor, en la que dos amigos que viven en unas cajas imaginan viajes a lugares ensoñadores, con su sorprendente creatividad. Su vida transcurre entre el juego, la convivencia, las peleas cotidianas y las reconciliaciones.

Maiatzak 5 de mayo • Igandea/Domingo • 12:30 • 6€



PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS EZ GARA JAITSIKO

Marimotots zuhaitz baten adaburura igo da, han goitik lurra hobeto ikusteko. Pirritxek eta Porrotxek atzetik jarraituko diote. Eta zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar, espero gabeko lekuetara helduko dira.

PAILAZOAK: PIRRI TX, PORRO TX ETA MARIMOTOTS. Gomendatua/Recomendado: 4 urtetik aurrera/A partir de 4 años 75 min. Euskaraz

Los payasos Pirritx, Porrotx eta Marimotots vuelven un año más al Social Antzokia para presentar su nuevo espectáculo, "Ez gara jaitsiko". Una ocasión inmejorable para que el público de todas las edades disfrute, ría, cante y baile con estos divertidos personajes.

Maiatzak 19 de mayo • Igandea/Domingo • 16:00/18:30 • 10€

SOCIAL ANTZOKIA

Nagusia, 2 - 48970 BASAURI (Bizkaia)



944 666 390

Leihatila
Taquilla }

944 666 393 (Arratsaldez/Tardes)

E-mail: socialantzokia@basauri.eus

Web: socialantzokia.eus

Aurreko Salmenta Venta Anticipada

Leihatilan

En taquilla

socialantzokia.eus

BBK-ren orotarako kutzazainetan

En cajeros multiservicio BBK

www.kutxabank.es

Erabilerraztasuna

Social Antzokiak mugikortasun murriztua duten pertsonen egokitutako instalazioak ditu.

Informazioa

- **Txarteldegiaren ordutegia:**
Astelehenetik igandera: 17:00-20:00.
- Ez da onartzen sarreren aldaketarik ez itzulketarik.
- Antolatzaileek bere gain hartzen dute ekitaldiaren programa aldatzeko eskubidea.
- Debekatuta dago ikuskizunak grabatzea edo filmatzea antolatzaileen baimenik gabe.
- Ikuskizuna hasi ondoren, ez dago aretoan sartzerik.
- Ekitaldiak irauten duen bitartean, telefono mugikorrek deskonektaturik egon behar dute.
- Aretoan ezin da jan.
- Basauriko Kultur Etxearen Funtzionamenduari buruzko Arautegian jasotako beste edozein arau bete beharko da.

Beharpenak

- **Socialen Lagunak:** % 35
- **Gazte Txartela:** % 30
- **Basauri Txartela:** % 15
- **Diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaileak:** % 20
- **Hitzemandako taldeak:**
 - % 30 eko beharpena 10 pertsonatik gorako taldeentzat.
 - % 50 eko beharpena 50 pertsonatik gorako taldeentzat.

Accesibilidad

El Social Antzokia dispone de instalaciones y accesos adaptados para personas con movilidad reducida.

Información

- **Horario de taquilla:**
De lunes a domingo: 17:00-20:00.
- Una vez adquirida la entrada, no se admiten cambios ni devoluciones.
- La Organización se reserva el derecho de alterar o modificar el programa del acto.
- Queda totalmente prohibido, grabar, filmar o fotografiar cualquier espectáculo sin la autorización expresa de la Organización.
- Una vez iniciado el espectáculo no se permitirá el acceso a la sala.
- Durante la función desconectad los teléfonos móviles.
- No se pueden consumir alimentos en la sala.
- Deberá cumplirse cualquier otra norma recogida en el Reglamento Regulador de Funcionamiento de la Kultur Etxea de Basauri.

Descuentos

- **Amigos/as del Social:** 35%
- **Gazte Txartela:** 30%
- **Basauri Txartela:** 15 %
- **Miembros de familias perceptoras de RGI:** 20 %
- **Grupos concertados:**
 - Descuento del 30% en los espectáculos para grupos de 10 o más personas.
 - Descuento del 50% para grupos de 50 o más personas.

Social Antzokira zelan iritsi



Geltokia: BASAURI (Irteera:Basozelai)



Geltokia: BIDEBIETA



Geltokia: UDALETXEA

Geltokia: ARIZ

Cómo llegar al Social Antzokia



Parada: BASAURI (Salida: Basozelai)




Parada: BIDEBIETA




Parada: AYUNTAMIENTO

Parada: ARIZ

SOCIAL ANTZOKIA



BESAULKI-PATIOA: 439 besaulkiak
PATIO DE BUTACAS: 439 butacas



SOCIALEN LAGUNAK 2024

AMIGOS/AS DEL SOCIAL 2024



Socialen Lagunak abantailadun ikusleak

- 2 sarrera doan 2024ko ikuskizunetarako, salbuespenak izan ezik.
- Zinemarako 6 sarrera doan.
- %35eko beherapena Social Antzokiak programatutako ikuskizunetan.
- Zine Kluba emanaldietarako eta Musika Gertu kontzertuetarako sarrerak doan.
- Beherapenak hainbat antzokitako sarreretan (Barakaldo, Santurtzi, Zornotza, Durango, Galdakao, Arrigorriaga...).

Los amig@s del Social disfrutan de unas ventajas espectaculares

- 2 entradas gratis para los espectáculos programados durante el año 2024, excepto los espectáculos a taquilla.
- 6 entradas de cine gratis.
- 35% de descuento en todos los espectáculos programados por el Social Antzokia.
- Entrada libre a las sesiones de Cine Social Club y a los conciertos de Musika Gertu.
- Descuentos en los teatros de Barakaldo, Santurtzi, Amorebieta, Durango, Elorrio, Galdakao, Arrigorriaga...